

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

6354

EBAZPENA, 2021eko azaroaren 26koa, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendaria-rena, 2021-2022 ikasturtean eskola-eremuan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzen Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jardun nahi duten irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntzak ematen dizkiena.

2021-2022 ikasturtean zehar eskola-eremuan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzen Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jardun nahi duten irabazi-asmorik gabeko erakundeei dei egiten dien Hezkuntzako sailburuaren 2021eko irailaren 1eko Aginduan (2021eko irailaren 8ko EHAA) ezarritakoaren arabera, eta Ebaluazio Batzordearen proposamena aztertuta, deialdi-aginduaren 12. artikulua aplikatuz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Honako dirulaguntza hauek ematea elkarteei, kasu bakoitzean zehazten den zenbatekoarekin:

Elkartea	Lurraldea	Dirulaguntza (eurotan)
Gao Lacho Drom	Araba	81.814,00
Kale Dor Kayiko	Gipuzkoa	113.689,00
Kale Dor Kayiko	Bizkaia	209.053,21
Amuge	Bizkaia	81.333,79

Bigarrena.– Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

a) Lehen ordainketa aurreratua, dirulaguntzaren % 20koa, emandako laguntza onartu eta berehala egingo dena, erakunde onuradunak lehen ordainketari dagokion zenbatekoaren % 50 justifikatu badu.

b) Gainerakoa, dirulaguntza osoaren % 80, tarteko memoria aurkeztu ondoren ordainduko da. Memoria horretan, proiektuaren ordura arteko garapena jasoko da, ikastetxeetan garatzen ari den lan-plana barne. Memoria hori 2022ko urtarrilaren 7tik 31ra bitartean aurkeztuko da.

Hirugarrena.– Honako elkarte hauek baztertzea zehazten diren arrazoiengatik.

Elkartea	Lurraldea	Uko egitearen arrazoiak
Itaka Eskolapiak	Gipuzkoa	12.2 artikulua
Zabalik	Gipuzkoa	12.2 artikulua

2021eko abenduaren 21a, asteartea

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 26a.

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendaria,
LUCÍA TORREALDAY BERRUECO.